

## ARIKETAK

### 1 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. **Nekazal** lanetan ibili naiz udan, amaginarrebaren baserrian.

---

2. **Finantzal** arazo larriak omen dituztelako ez dute egingo **merkatal** gune berria.

---

3. Inork ez du arazoa konpontzeko **neurririk** hartzen.

---

4. **Nire** etxean eman dut asteburua, **nire** gurasoekin eta **nire** emaztearekin.

---

5. **Nire** amak egingo digu bazkaria, eta **zure** aitak afaria.

---

6. Eta **zuretzat**, norentzat izango da lehen saria?

---

7. Ahaztu **zaizkit** zuen txostenak zuzentzea.

---

8. Ez **dakizkizu** epeak betetzen ala?

---

9. Ohean gaixorik omen zegoen, baina **kalefik** paseatzen ikusi nuen atzo.

---

10. Oporrak hartuko ditut eta ez nauzu hilabetean **lantokiik** ikusiko.

---

11. —Egun on. **Hortik** al dabil Koldo? —Bai, **hemendik** dabil.

---

12. Zure oharra **hemendik** utzi nuen baina ez dut gogoratzen non.

---

13. Gorpu bat aurkitu dute errekan itota, baina oraindik ez dute jakinarazi haren **nortasuna**.

---

14. Gure eskubide batzuei uko egin eta horren truke ezer jaso ez? **Noski ezetz!**

---

15. Bazkaria zuk ordainduko duzula? **Noski joango naizela!**

---

# ARIKETAK



## ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. a) **Nafarrekin** elkartzera joango naiz hilaren amaieran.  
b) **Nafartarrekin** elkartzera joango naiz hilaren amaieran.  
c) **Naparrekin** elkartzera joango naiz hilaren amaieran.  
d) **Napartarrekin** elkartzera joango naiz hilaren amaieran.
2. a) Goizean berandu heldu **zarenez**, beranduago atera beharko duzu arratsaldean.  
b) Goizean berandu heldu **zarenez gero**, beranduago atera beharko duzu arratsaldean.
3. a) Jantokian entzun **dudanez**, ez dute aldatuko ordutegia.  
b) Jantokian entzun **dudanez gero**, ez dute aldatuko ordutegia.
4. a) Lanera, gehienetan, **autobusean** etortzen naiz eta batzuetan **autoan**.  
b) Lanera, gehienetan, **autobusez** etortzen naiz eta batzuetan **autoz**.
5. a) Nire **autoan** etorri beharrean, laneko **autobusean** etorri naiz gaur.  
b) Nire **autoaz** etorri beharrean, laneko **autobusaz** etorri naiz gaur.
6. a) Ez naiz inongoa, baina **non nahitarra** sentitzen naiz **noiz nahi**.  
b) Ez naiz inongoa, baina **non-nahitarra** sentitzen naiz **noiz-nahi**.  
c) Ez naiz inongoa, baina **non-nahitarra** sentitzen naiz **noiznahi**.  
d) Ez naiz inongoa, baina **nonahitarra** sentitzen naiz **noiznahi**.  
e) Ez naiz inongoa, baina **nonahitarra** sentitzen naiz **noiz-nahi**.
7. Lurralde ordezkarietara protestatzera joan direnekin ados gaude:  
a) Lurralde ordezkarietako protestarekin bat gatoz.  
b) Lurralde ordezkarietazaren protestarekin bat gatoz.
8. Lurralde ordezkarietaz egin duen protestarekin ados gaude:  
a) Lurralde ordezkarietazako protestarekin bat gatoz.  
b) Lurralde ordezkarietazaren protestarekin bat gatoz.
9. a) Ez dakit non utzi ditudan etxearen eta autoaren giltzak.  
b) Ez dakit non utzi ditudan etxeko eta autoko giltzak.
10. a) **Nora ezean** ez bada, ez dut inoiz joko zuregana laguntza eske.  
b) **Noraezean** ez bada, ez dut inoiz joko zuregana laguntza eske.
11. a) Mapa galdu genuen eta **nora ezean** ibili ginen nork lagundu topatu arte.  
b) Mapa galdu genuen eta **noraezean** ibili ginen nork lagundu topatu arte.
12. a) **Bakoitzak** izenpetu behar du inprimakia.  
b) **Norberak** izenpetu behar du inprimakia.  
c) **Nork bera** izenpetu behar du inprimakia.
13. a) **Norberari berea** eman behar zaio: horixe da zuzenbidea.  
b) **Nori berea** eman behar zaio: horixe da zuzenbidea.
14. a) Hilabetea dugu **norberak bere** zatia amaitzeko.  
b) Hilabetea dugu **nork bere** zatia amaitzeko.
15. a) Hitzarmen bat izenpetu dute **notariaren** aurrean.  
b) Hitzarmen bat izenpetu dute **notarioaren** aurrean.
16. a) **Ongi etorria** eman nahi diogu Olatz jaioberriari.  
b) **Ongietorria** eman nahi diogu Olatz jaioberriari.
17. a) **Ongi etorriak**, lagunok!  
b) **Ongi etorri**, lagunok!
18. a) Badakizu **ongi etorri** zarela beti gurean.  
b) Badakizu **ongi etorria** zarela beti gurean.  
c) Badakizu **ongietorria** zarela beti gurean.
19. a) **Ohiko** ariketa den arren, erantzun desberdina du oraingoan.  
b) **Ohizko** ariketa den arren, erantzun desberdina du oraingoan.
20. a) **Ontzia** galduz gero, guztiok pilotu.  
b) **Untzia** galduz gero, guztiok pilotu.

3

## HIZTEGI BATUAREN BIGARREN ORRAZKETA

Hiztegi Batuaren bigarren orrazketan hainbat hitz berri sartu dira. Hona dakarzkigu batzuk. Aukeratu egokiena(k):

1. a) Nahi baduzu, hemen gelditu eta bertan afalduko **gara**.  
b) Nahi baduzu, hemen gelditu eta bertan afalduko **dugu**.
2. a) Inork sinesten al du **afganiarrak** laguntzarren egin zela gerra?  
b) Inork sinesten al du **afganistandarrak** laguntzarren egin zela gerra?  
c) Inork sinesten al du **afganoak** laguntzarren egin zela gerra?
3. a) Dela hezetasunagatik, dela hotza, ezin genituen musika tresnak **afinatu**.  
b) Dela hezetasunagatik, dela hotza, ezin genituen musika tresnak **aurindu**.  
c) Dela hezetasunagatik, dela hotza, ezin genituen musika tresnak **tonuan jarri**.
4. a) Debeekatuta dago horman **afitxak** jartzea.  
b) Debeekatuta dago horman **afixak** jartzea.  
c) Debeekatuta dago horman **kartelak** jartzea.
5. a) Duela 65 urte **afusilatu** zuten Lauaxeta.  
b) Duela 65 urte **fusilatu** zuten Lauaxeta.
6. a) **Agaramondarrak** Nafarroako ahaide-bando bat ziren.  
b) **Agaramontarrak** Nafarroako ahaide-bando bat ziren.  
c) **Agromondarrak** Nafarroako ahaide-bando bat ziren.  
d) **Agromontarrak** Nafarroako ahaide-bando bat ziren.  
e) **Agromontesak** Nafarroako ahaide-bando bat ziren.
7. a) Bera da taldearen **ageriko** aurpegia, baina erabakiak denon artean hartzen dira.  
b) Bera da taldearen **agerizko** aurpegia, baina erabakiak denon artean hartzen dira.  
c) Bera da taldearen **agiriko** aurpegia, baina erabakiak denon artean hartzen dira.  
d) Bera da taldearen **jendaurreko** aurpegia, baina erabakiak denon artean hartzen dira.  
e) Bera da taldearen aurpegi **publikoa**, baina erabakiak denon artean hartzen dira.
8. a) Hemen, **agi denez**, zaila da guztion gustuko irtenbidea adostea.  
b) Hemen, **agi danez**, zaila da guztion gustuko irtenbidea adostea.  
c) Hemen, **agidanez**, zaila da guztion gustuko irtenbidea adostea.  
d) Hemen, **agidanean**, zaila da guztion gustuko irtenbidea adostea.  
e) Hemen, **aidanez**, zaila da guztion gustuko irtenbidea adostea.
9. a) Zure **agindupean** nagoen arren, ez naiz zure mirabea.  
b) Zure **aginpean** nagoen arren, ez naiz zure mirabea.
10. a) Ez dakit arau hura dekretua ala **agindua** zen.  
b) Ez dakit arau hura dekretua ala **agintaraua** zen.
11. a) Estatuko Gobernuak ez du **agintepiderik** auzi honetan.  
b) Estatuko Gobernuak ez du **agintebiderik** auzi honetan.  
c) Estatuko Gobernuak ez du **aginbiderik** auzi honetan.  
d) Estatuko Gobernuak ez du **aginpiderik** auzi honetan.  
e) Estatuko Gobernuak ez du **eskumenik** auzi honetan.
12. a) Isildu ezean, berehala etorriko dira **agoazilak**.  
b) Isildu ezean, berehala etorriko dira **aguazilak**.  
c) Isildu ezean, berehala etorriko dira **algoazilak**.  
d) Isildu ezean, berehala etorriko dira **alguazilak**.  
e) Isildu ezean, berehala etorriko dira **udaltzainak**.
13. a) **Aguakata** mexikarra da jatorriz.  
b) **Aguakatea** mexikarra da jatorriz.  
c) **Ahuakata** mexikarra da jatorriz.  
d) **Ahuakatea** mexikarra da jatorriz.
14. a) Herri honetako **agure-atsoek** badute egoitza berri bat euren aisialdirako.  
b) Herri honetako **atso-agureek** badute egoitza berri bat euren aisialdirako.
15. a) Auzokoen oihuak entzutean, **agudo** alde egin zuten lapurrek.  
b) Auzokoen oihuak entzutean, **aguro** alde egin zuten lapurrek.

# SOLUZIOAK

## 1 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. **Nekazaritza** lanetan ibili naiz udan, amaginarrebaren baserrian.
2. **Finantza** arazo larriak omen dituztelako ez dute egingo **merkatariitza** gunee berria.
3. Inork ez du arazoa konpontzeko **erabakirik** hartzen.
4. **Etxean** eman dut asteburua, **gurasoekin** eta **emaztearekin**.
5. **Gure** amak egingo digu bazkaria, eta **zuen** aitak afaria.
6. Eta **zure iritzi / zure ustez / zurekiko**, norentzat izango da lehen saria?
7. Ahaztu **zait** zuen txostenak zuzentzea.
8. Ez **dakizu** epeak betetzen ala?
9. Ohean gaixorik omen zegoen, baina **kalean** paseatzen ikusi nuen atzo.
10. Oporrak hartuko ditut eta ez nauzu hilabetean **lantokian** ikusiko.
11. —Egun on. **Hor** al dabil Koldo? —Bai, **hemen** dabil.
12. Zure oharra **hemen nonbait** utzi nuen baina ez dut gogoratzen non.
13. Gorpu bat aurkitu dute errekan ifota, baina oraindik ez dute jakinarazi **nor den**.
14. Gure eskubide batzuei uko egin eta horren truke ezer jaso ez? **Ez noski!** / **Ez horixe!** / **Jakina ezetz!**
15. Bazkaria zuk ordainduko duzula? **Joango naiz, noski!** / **Jakina joango naizela!**

## 2 Zuzena edo egokiena aukeratu, zalantza-dantza liburuxkako aholkuen arabera

1. a
2. a eta b
3. a
4. b
5. a
6. c eta d
7. a
8. b
9. b
10. b
11. a
12. a eta b, baina b gehiago erabili beharko genuke.
13. b
14. b
15. b
16. b
17. b
18. b
19. hobe a
20. a

## 3 Hiztegi batuaren itzulera

Aukera bat edo bi zuzentzat ematen bada, besteak ez dira euskara batuan onartzen. Aldiz, aukera bat HOBESTEN bada, bestea maila apalago batean onartzen da.

1. a (Ipar.) eta b (Heg.)
2. a eta b
3. hobe b eta c
4. b eta c
5. b
6. b
7. c oker, eta b baino hobe: a, d eta e
8. c eta d
9. a
10. a
11. d eta e
12. b herri-mailakoa da; bestela e erabili
13. d
14. b
15. a